

«Aberri ama, horixe gauza ridikulua Latinoamerikan!»

Argentinan jaioa da baina Latinoamerika du aberri. Hango herrien erresistentzia eta lurrarengatiko borrokarekin bat eginda bizi da.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

1971koa da Eduardo Galeanoren *Las venas abiertas de América Latina* (Amerika Latinoaren zain irekiak) liburua. Handik zazpi urtera, berrargitalpena, egilearen gibel-solas batez lagundurik. Zioenez, zazpi urtean, zainak behin ere baino irekiago ziren, egoera okerragoa. Nola dira gaur egun?

Zainak irekita daude oraindik, herrialde batzuetan besteetan baino irekiago. Leku batzuetan kauterizatzen ari dira. Hala ere, zainak irekita dauden herrialdeetan, Galeanok liburua idatzi zuen garaiko arrazoiak eta oraingoak berberak dira. Pobrezia ostertza dute biztanle gehienek; milaka haur heriotzara bidean dira sendatzeko moduko eritasunak izan arren; estatua zeharo desagertuta dago herrialde horietan... Komunitate indigeneztat ez dago estatutik, ezta gobernu egoitzetatik bertara bizi diren behartsuenetzat ere. Estatua desagertu egin da. Horri buruz ari da Galeano bere liburuan.

Estatua zeharo desagertuta dagoela diozu. Errepresioari dagokionean ondo presente dago, horratik! Bateko diktadura, besteko heriotza eskudroi, hurrengo polizia, militar, paramilitar...

O, bai, horretan bai, horretan estatuak ez du bere burua erakusteko lotsarik. Errepresioan bezainbat saiatuko balitz osasunean eta hezkuntzan, beste oilar batek joko luke kukurruku, haur osasuntsu eta ikasiak genituzke! Zapalkuntza mailari denaz bezainbatean, ez dago baztertzen duten armarik. Are gehiago esango dizut, badute zapalkuntza arma berri bat, gobernu “aurrerakoiek” —komatxo askoren artean “aurrerakoi”—, erabiltzen ari direna: koptazioa.

Koptazioa?

Bai, gizarte eragile eta mugimenduetara hurre-ratu eta mundu posible hori momentuan bertan eskaintzen diete, diruaren bidetik. Hone-tan eta hartan lanean jartzen dituzte eta beligerantzia maila urritzea lortzen dute... Mugimendu garrantzi handikoak koptatu dira horrela Argentinan, Txilen, Uruguain, Brasi-len... Borroka eta errebeldiaren sinbolo izan ziren mugimenduak koptatu dituzte! Diruaren bidez, kargutxoak emanez, lizitazioak, telefo-no zelularrak, autoak... Denetarik!

Herrialde batzuetan zain irekiok kauterizatzen ari direla esan diguzu arestian.

Bai, hor dira Venezuela, Kuba, Ekuador, Boli-via... Horietan, zer egin dute lehenengo-lehe-nengo, hauteskunde bidez gobernuaz jabetu eta gero? Jendea alfabetatzen hasi. Eta lortu ere egin dute, denbora epe minimoan! Bere garaian egin izan balute, Latinoamerika osoa alfabetatua izango genuke gaur egun. Baina, jakina, sasoi bateko agintariek horrelako lanik ez zuten egin nahi izan, alfabetatu orduko jen-dea galdezka hasten delako, eta konturatzen, zeinek engainatzen duen.

Dakidanez, fede handia diozu Kubari.

Berak lagundu digu urte hauetan zutik eusten, ez Venezuela eta ez gainerakoak ez zeuden garaian. Kuba itsasargi epikoa izan da, eta hori

Nortasun agiria

Carlos Aznarez (Buenos Aires, 1947). Altsasuarra zuen aita, Argentinara lanera emigratua. Euskal Herria du maite, Latinoamerikako herrien borroka eta erresistentzia bezainbat. Argentinako diktadura eta errepresioaren ondorioz heldu zen Euskal Herrira eta Argentinatik hona joan-etorrian ibili da urte askoan. Euskaldunak ditu andre-alabak. Kazetari lanean jardun du hainbat hedabidetan eta zenbait libururen egile ere bada. *Resumen Latino-americano* aldizkariaren zuzendari da gaur egun.

• P E R T S O N A I A •

Carlos Aznarez





AZKEN HITZA

Zainak irekita

“Boladan dago berriz Eduardo Gleanoren liburua, Chavezek Obamari opari eman zionetik. Jakina, Obamak haren aztarnarik ez zuen, buruz behera hartu zuen liburua, Bushek egiten zuen bezala. Opari egite hori dela-eta, galdezka joan zitzaizkion Galea-nori, eta honek: ‘Haurrak itxuragabe hiltzen diren bitartean, jendea alfabetatuta ez dagoen bitartean, gainerako lanek egin gabe irauten duten artean, zainek irekita segituko dute’”.

baino areago, elkartasun eredu, sasoi guztietan. Dirurik ematen ez dion elkartasuna da Kubarena: medikuak eta medikuak bidali izan ditu erbestera, baita Kubaren kontrako ziren herrialdeetara ere, herrialde antikomunista suharretara! Horixe da elkartasuna, ordainik gabeko laguntza, eta horixe egin du Kubak Latinoamerikako hainbat herritan, osasungintzan eta hezkuntzan, Hirugarren Munduan eta Lehenengoan. New Yorkeko Bronxen ere kubatarrek dituzu mediku. Eta Pakistanen, eta Afrikan, inor joaten ez den lekuetan —arpilatzera ez bada, alegia—, kubatarrek eta venezuelarrak ari dira sendagile.

Zure lan eta idatzietara jo eta Hego Amerikako herrialdeen aipamen askoren artean, nekez ageri da Brasil...

Ez da berdin

“Ez da berdin Kolonbian FARCEk bahituta egotea, edo Uribetasunaren ziegetan gatibu izatea. Ez da berdin. Ez da berdin gerrillarien borroka, aldetaren aldekoa, torturatzen ez duena, inor hiltzen ez duena edo hiltzen badu, beraiek ere hiltzen dituztelako hiltzen duena. Ez da berdin hori eta estatuaren borroka: hegazkinak, helikopteroak, napalm, laranja gasak, uranio pobretutako bonbak... Ez, ez da berdin. Ez da berdin palestinarren Kazan artisau kohetea, eta israeldarren gerra hegazkinak populazio zibila bonbardatzen. Ez da berdin”.

Interesgarria da gaia... Brasil herrialdea ez ezik, kontinente bat da! Brasil asko dira Brasil barruan. Ez dut aurreko gobernuek hitz egingo, neoliberalak baitziren zeharo, kapitalista ankerrak, diktadura militarrek... Horiez hitz egiteak ez du balio. Lula agertu zenean, berriz, esperantza izan genuen. Lulak behartsuen botoa jaso zuen, baina baita nekazarien Lurrik Gabekoen Mugimenduaren boto ondo antolatua ere, esperantza baitzuten nekazaritza erreforma egingo zuela, lurren banaketa antolatu, Latinoamerikan horixe baita borrokarik latzena oraindik, lurrarengatiko borroka. Oligarkia lokalek eta latifundista amorratuek ez dute etsitzen. Baina ez zen erreformarik gauzatu, Lula aho biko jokoa hasi zelako, batean AEBei keinuka, bestean bere boto-emaile aurrerakoiei.

AEBak aipatu dituzu. Etsaia AEBak dira beti, ala etxe barruan da arerioa?

Nola den. Zein da etsaia, konkistatzailea, gu ebanjelizatu eta hiltzera etorria, ala konkistatzaileek hezi zituzten kreolak? Biak! Latinoamerikako ejertzito pribatuak noizik eta behin gure herrietara etortzen diren amerikarren eskutik jaten dute. Etsaia etxe barruan dugu, bai, baina doktrina AEBetatik dator. “Washington” esan ohi dugu guk, baina izatez, transnazionalak dira, tronuaren atzean dagoen boterea, alegia. Horiek presidentek ere beren nahiera erabiltzen dituzte. Horixe esan zion Fidelek [Castro] Obamari: “Gauza bat da zuk borondate ona izatea eta, beste bat, zu inperioaren soldadu zarela jabetzea”. Inperioa zer abstraktua da, baina ez hain abstraktua.

Obama, Fidel, Chavez, Evo Morales... Deabru bakarra dago, zure iritziz.

Bakarra. Aspaldiko kontua da hori. 70eko hamarkadan izan ziren gatazka armatuek gero deabru bi daudela sinestarazi nahi izan digute: militarrek, batetik, eta armak eskuan haiei kontra egiten jardun zuten iraultzaiei.

leak. Ez. Deabru bat bakarra da. Gerrillak, armatan altxatu zirenak, lantegietan borrokatu zirenak... Baliteke horiek akatsak egitea, okerrak –gazteek egin ohi dituzten okerrak, askotan–, baina ez dago, ezta hurrik eman ere, haiek estatuarekin konparatzerik. Estatuaren terrorismoak torturatu, masakratu, desagerrarazi egin zuen. Garbi izan behar da hori.

Gerrillak, batean; estatua, bestean. Zuk ez duzu objektibo izateko asmorik.

Ez horixe. Batetik, objektibotasunik ez dago. Bestetik, ni alde batekoen alde paratu naiz, hau da, informazio mailan manipulatu dauden alde eta, gainera, diskriminatuak, kolpatuak, desagertuak direnen alde. Ni jende apalaren aldean jarri naiz, edota hain apala ez izanagatik ere, borroka egiten duenaren aldean, erresistentziaren alde. Boterearen aurrean ez dago erresistitu besterik, erresistitu beti. Eta horretan ari naiz kazetaritzatik bertatik. Zortea dut lagun, horretan ari bainaiz. Baina horretan ari ez nintzenean, neu ere pertsegitua izan nintzen, kartzelatu eta torturatu. Ez dut objektibotasuna badenik sinesten. Objektibo dela dioenak gezurra dio zirrikituren batetik. Aldiz, egia badena sinesten dut.

Zeinek laguntzen dio Latinoamerikari, esperantzak ala borrokak?

Borrokak, dudarik gabe. Horixe da giltza. Esperantza izateko, borroka egin behar da. Gutxitan erabili ohi dut esperantza hitza. Askapenaren Teologiaren aurrekoa naiz, baina aspaldi barneratua dut: inork ez dizkizu babak eltzetik aterako zeu borrokatzen ez bazara.

AEBak, Washington ageri da sarri zure 'hitz agendan'. Non da Europa?

Europa, izan, Washingtonen ahizpa txikia da. Batzuetan, haren txakurtxo polita. Horra Europako kapitalistak, hemengo transnazionalak... Esango nuke Latinoamerikan orain-txe gehiago direla europar transnazionalak, ipar amerikarrak baino. AEBak beste era batera ageri dira gure kontinentean: hegazkinetatik era bateko eta besteko gasak botaz Kolonbiako gerrillaren kontra eta abar. Hori Washingtonek egiten du. Baina Iberdrola, Ensidesa, Telefonica... ari dira indigenen betiko lur eta basoak suntsitzen, bizkartzainak eta heriotza eskudroiak erabiliz. Nor ari da Txilen, adibidez, maputxeak hiltzen, maputxe "muturrekoek" torlojurik sar ez diezaioten basoak suntsitzeko erabiltzen duten makinetak batean. Europak paper ezin okerragoa jokatzen du? Palestinan jokatu zuen bezala.

Hizkuntza inposatua

"Zoritxarrez, konkistatzailearen hizkuntza erabiltzen dugu. Hizkuntza inposatu ziguten, eta latza da hori. Maputxeak, aimarak... Asko dira hizkuntzaren aldeko borrokan. Guaraniek eutsi diote hizkuntzari, Uruguain. Han guaranierak gaztelaniak beste balio du. Argentinan jatorrizko hogeik hizkuntza galdu dira, jendea zanpatu beharrez! Hona etorri eta euskararen aldeko borroka ikusi eta diot: 'Hau da borroka funtsezkoena, herri baten identitatea hizkuntzaren aldeko borrokak markatzen du. Hizkuntza galduz gero, identitatearen aldeko borrokaren zati handia galtzen da'".

Europar mentalitatearen barruan neke da ulertzen Latinoamerikan lurrarengatik dela borroka!

Han horixe da borrokarik funtsezkoena, herri indigenak azalera etortzen hasi direnetik, batik bat, lehenago ikusezin egin baitziztuzten. Bizia bezain ezinbestekoa da han lurrarengatik borroka. Lurrak ematen digu jaten, lurrak babesten gaitu, lurrak dakar ura... Nik, horretan, zeharo bat egiten dut indigenen kosmogoniak dioenarekin: "Zaindu lurra, zeure burua zaintzen ari zara-eta". Evo Moralesen esaldi eder bat datorkit gogora, oraindik orain Argentinan esan ziguna: "Lurrik gabe, gizakiok hil egingo gara. Gizakirik gabe ere, lurrak bizirik iraungo du. Gizakion esku dago lurra nola zainduko dugun erabakitzea, desager ez gaitezen". Europan hobe lukete horri kasu egin eta ez etxe furian segitu. Tira, krisiak galga jarri dio eromenari, oraingoz. Baina aski duzu itzuli bat egin Euskal Herrian gaindi, eta ikusi nola baztertzen den lurra, zein gutxi zaintzen. Hemen, lehen baserria zegoenean txaleta dago orain. Milioiunen txaletak. Lurraren defentsak hemen beste irauli bat behar du. Hitz egin izan dut zenbait biltzarretan Paul Nicholson eta EHNEko zenbaitekin, eta desesperatu egiten dira, hemen ez baita horretaz jendea jabetzen. Evo Moralesen oharra ez dagokio, soilik, Latinoamerikari.

Latinoamerikaz jardun dugu, baina zergatik ez da hura lehen mailako albiste europar hedabideetan, hondamendia, hauteskundeak edo kanpo zorra ez badira tartean?

Horixe da diskurtso bakarra, manipulazio informatiboaren diskurtsoa. Hori ez da herrien agenda, agintariena baizik. Ez dute Latinoamerikako benetako problemek hitz egin nahi. Haietaz hitz egitea eredu izan daiteke munduko beste zenbait herrialdetan. Kolonizatzailearen mentalitatea da, kolonizatuen artean ere zaleak dituen arren. Horixe da okerrera. Uruguain, Bolivian, Brasilen, askok diote: "Hobe Frantziak hitz egin, Ingalaterraz...". Aberri ama aipatzen ez dizutenean! Horixe gauza ridikulua! Zer aberri ama, gero! Ama torturatzalea, zikiratzalea, hiltzalea, ebanjelizatzailea... Hori ez da benetako ama; ama, maitasuna da batez ere! Ez 'aberri ama' hori! Arrazaren eguna-eta! Eskerrak, Chavezek kito esan du, Venezuelan ez dago arrazaren egunik, eta Correak ere hortik jo du Ekuadorren: Erresistentzia Indigenaren Eguna izendatu du. Hartuko nuke Argentinan ere berdin jokatzea! ■

**www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, elkarriketaren bertsio luzea.**